

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

5295

324/2024 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluaren osaera berritzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren, eta geroago ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuaren, abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuaren eta azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren bidez aldatu; bada, estatutu horien 6.2 artikuluan xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- Bost bokal, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari gisa. Aipatutako sindikatu-antolakundeek proposatuko dituzte bost bokal horiek, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez izendatuko dira.
- Bost bokal, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari gisa. Aipatutako enpresa-antolakundeek proposatuko dituzte bokal horiek, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez izendatuko dira.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011ko abenduaren 12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko hasierako kideak izendatu ziren, bat etorri hura arautzen duen legean agindutakoarekin. Geroago, Lanbideren Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen zenbait berritze partzial egin dira, hainbat arrazoiengatik, bai Administrazioaren ordezkari gisa izendatutakoei, bai Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari gisa handiena duten sindikatuen eta enpresaburuen elkarten ordezkari gisa izendatutakoei dagokienez.

Ekainaren 29ko 156/2021 Dekretuaren bidez (2021eko uztailaren 6ko EHAA, 132. zk.), Lanbideren Estatutuen 6. artikuluko 3. apartatua aldatu zen arte, isilbidez berritzen ziren Administrazio Kontseiluko kideak; hau da, izendatutzat jotzen diren lehendik Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez Kontseilua osatzen duten erakundeen ordezkari izendatuak ziren kideak. Estatutuen aldaketa hori indarrean sartuz geroztik, Kontseiluburuak ofizioz hasi behar du Administrazio Kontseilua erabat berritzeko prozesua, agintaldiaren 3 urteko epea amaitu eta hurrengo hilabetean.

Epe hori igarota, abian da Administrazio Kontseiluaren osaera osoa berritzeko prozesua. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari gisa handiena duten sindikatu- eta enpresa-antolakunde guztiek, Euskal Langileen Alkartasuna (ELA) sindikatuak izan ezik, dagozkien kideak izendatu

zituzten, ezarritako epean. Horren ostean, hutsik geratu diren kideen postuak taldeko gainerako erakundeen artean banatu dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 6.3 artikuluan aurreikusitako eran.

Horrenbestez, Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 5eko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Honako hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko kide izateari uztea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkariek:

Jorge Arévalo Turrillas jauna, Lanbide Heziketako sailburuordea, eta Mikel Amundarain Leibar jauna, Industriako sailburuordea, titularrak; eta Nicolás Sagarzazu Alzua jauna, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria, eta Ana Belén Camacho Bera andrea, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendaria.

Enpresa-antolakundeen ordezkariek:

Nerea Zamacola Gárate andrea, Francisco Javier Azpiazu Lasuen jauna, Juan Ugarte Aguirrezabal jauna, Carlos Pereda Martínez de Musitu jauna eta Eduardo Aréchaga Cilleruelo jauna, titularrak; eta Mikel Sarriegi Etxeberria jauna, Gonzalo Salcedo Bilbao jauna, Yoana Arambalza Zalbidea, Asier Aloria Sánchez jauna eta Virginia Múgica Conde andrea, ordezkoak. Confebask Euskal Enpresarien Konfederakuntzakoak dira denak.

Sindikatuaren ordezkariek:

Arantza Martínez Tobalina andrea, Goio Martín Benito jauna eta Lorenzo Sebastián García jauna, titularrak; eta Francisco Juan Osuna Matamoros jauna, Óscar Arenas Velasco jauna eta Estibaliz Montero Mendoza andrea, ordezkoak. Euskadiko Langile Komisioak (CCOO) sindikatu-konfederazioko kideak dira.

Raúl Arza Vélez jauna eta Arantza Niño Núñez andrea, titularrak; eta Xuria Arza Vélez andrea eta Daniel González Taboada jauna, ordezkoak. Euskadiko Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuko kideak dira.

2. artikulua.– Honako hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkariek:

Jon Labaka Intxauspe jauna, Lanbide Heziketako sailburuordea, eta Andoitz Korta Zearreta jauna, Industriako sailburuordea, titular gisa; eta Nicolás Sagarzazu Alzua jauna, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendaria, eta Jose Luis Azkue Arrastoa jauna, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendaria, ordezko gisa.

Enpresa-antolakundeen ordezkariek:

Carlos Pereda Martínez de Musitu jauna, Nerea Zamacola Gárate andrea, Gonzalo Salcedo Bilbao jauna, Juan Ugarte Aguirrezabal jauna eta Zigor Ezpeleta Alberdi jauna, titular gisa; eta Asier Aloria Sanchez jauna, Mikel Sarriegi Etxeberria jauna, Néstor Ériz Laskurain jauna, Yoana Arambalza Zalbidea

andrea eta Patxi Olabarría Furundarena jauna, ordezkoko gisa. Confebask Euskal Enpresarien Konfederakuntzakoak dira guztiak.

Sindikatuaren ordezkariak:

Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuaren izenean, Jokin Zubiria Lagunilla jauna, titular gisa; eta Leyre Trigueros Labeaga andrea, ordezkoko gisa.

Euskadiko Langile Komisioak (CCOO) sindikatu-konfederazioaren izenean, Estibaliz Montero Mendoza andrea eta Gregorio Martín Benito jauna, titular gisa; eta Jone Robledo Zapatero andrea eta Lorenzo Sebastián García jauna, ordezkoko gisa.

Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuaren izenean, Arantza Niño Núñez andrea eta Raúl Arza Vélez jauna, titular gisa; eta Xuria Arza Vélez andrea eta Daniel González Taboada jauna, ordezkoko gisa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuetan ezarritako iraupena izango dute izendapenek.

3. artikulua.– Onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.